



Berdintasunean

Hezten

Bigarren Hezkuntzako
ikasleentzako gida

Gogarteak, galderak eta istorioak

Berdintasunean Hezten. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako gida

Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren Laguntzaz FETE UGTk egindako programa

Egileak:

Inés Campillo Poza

Elia Villate Ruano

FETE-UGT

Emakumearen Institutuaren lankidetzarekin

Argitalpen honetako testuetan oinarrituta:

Coeducación: dos sexos en un solo mundo

Graciela Hernández Morales

M^a Jesús Cerviño Saavedra

ITE (Berdintasun Ministerioa)

Emakumearen Institutua (Berdintasun Ministerioa)

Madril, 2009

Irudiak: Mónica Carretero

Itzulpena: Roberto Casas Andrés

Edizioaren Koordinatzailea: Sendra Ros Escanez

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Nola definitzen dugu emakume eta gizonen arteko berdintasuna?	9
Emakumeen eskubideen historia	12
Nola erabaki nire bizi proiektua tranpa sexistetan erori gabe	16
Gure gorputzetan zoriontsu bizitzen	20
Ondo maitatzen ikasten	22
Zuk ere lagun dezakezu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko harremanak eraikitzen	25
Gela propio bat eta erantzukidetasunerako espazioa	28
Zergatik da hain garrantzitsua mintzaira inklusibo eta ez sexista erabiliz hitz egitea?	32
Berdintasunerako legeak	35
Historian itzala utzi zuten emakumeak	38
Emakumeak munduan eta Milurtekoko Helburuak	42

Aurkezpena

Historiako une askotan emakumeak eta gizonak bide ezberdinetatik joan dira.

Gogora ezazue kultura batzuetan familia eta etxeko giroarekin erlaxionatutako funtzioak esleitu zitzaizkiela emakumeei. Gizonak, aldiz, garrantzitsuagotzat hartutako arazoez arduratzen ziren, esparru publikoarekin zerikusia zutenez, alegia: gobernuak, filosofia, zientzia, legea... edota gerra. Bikoiztasun horretako adibidea da mendebaldeko kultura. Grezia klasikoan, adibidez, gizona zibilizazio, arrazoi eta ordenarekin identifikatuta zegoen, baina emakumea natura, emozio eta kaosarekin. Horregatik eta familia eta gizartearen ordena babestearren emakumeak gizonen menpe egotea egokitzat jotzen zen.

Herri askotan eta luzaro, emakumeen etorkizuna ezartzen zuten arauak, legeak, tradizioak eta irakaspenak sortu ziren hori lortzeko, euren askatasuna, esku-bideak eta autonomia mugatuz.



Duela gutxi gure herrialdean garai hori atzean uzteko ekarpen handia egin du demokraziak. Emakumeen eskubideen eskabiderako funtsezko konkistak lortu zituen mugimendu feministak. Gizarte osoak laster onetsi zituen konkista horiek. Bankuan kontu korrante bat irekitzea, ondasunak saltzea, seme-alaben zaintza lortzea edo lan egitea bezalako jarduerak egiteko senar edo aitaren baimena behar zuten emakumeek, baina emakumeak adinez txikitzat hartzen zituzten lege horiek indargabetu ziren. Gizartearen arlo guztietan emakumeen baztertze eta diskriminazioa saihesteko neurriak hartzen hasi ziren. Neskak eta mutilak geletara elkarrekin joaten hasi ziren, eskubide berberekin estudiantuz eta erlazionatzen ikasiz. Emakumeak lan ordainduan sartzen hasi ziren eta Parlamentua, unibertsitatea, sindikatuak edo arlo juridikoa bezalako lekuetan salbuespena izateari utzi zioten. Tradizionalki etxean eta familian emakumeek egindako lanaren kostuari buruz hitz egiten hasi zen, baita etxeko lanak eta pertsonen zaintza eta arreta konpartitzearen garrantziari buruz ere. Era berean, sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko eztabaida inportante bat hasi zen. Dibortzioa legeztatu egin zen. Emakumeekiko tratu txarrek gai pribatua izateari utzi zioten eta legeak zigortutako delitua eta gizarte osoaren kezka izaten hasi ziren.



Espainiako Konstituzioak baietsi eta hiru hamarkadara, emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako legegintza-ingurua duen herrialde batean bizi gara.

Egia da dena konponduta ez dagoela, mende askotan zehar belau-naldiz belaunaldi transmititu diren arauak, denborak bigundu baditu ere, zer garen eta zer izan behar dugun erabakitzean eta gure harremanetan eta aukeretan oso eragingarriak izaten jarraitzen dutelako, baina ez dugu ahaztu behar gaur egungo gizon-emakumeok aurreiritzi zaharrei aurre egin eta gure bizitza berdintasunean erabaki dezakegu-la, edozein diskriminazio motari kontra eginez.

Iraganari buruz hausnartzeko garaia da, historian zehar zuzengabeko halabeharraren kontra borrokatu duten emakumeak gogoratu, euren eskubideen alde lan eginez eta gizateriaren garapenerako lagunduz.

Gaur egun estereotipoak berrikusi, emakumea eta gizona izateko ereduak berriz pentsatu eta eredu ezberdinak hautatzea garrantzizkoa da, errespetuz, erantzukidetasunez eta elkar onetsiz erlazionatzen garelarik.

Berdintasunak guzti-guztiori on egiten digula ikasi dugu gure egunotan, egunero esparru pertsonal eta familiarrean gertatzen dena mundu publikoan gertatutakoa bezain baliotsua delako. Berdintasunak aberasten gaitu, emakumea edo gizona izateagatik existitzen diren murrizketarik gabe askatasun eta autonomia gehiagoz bizitzako dimentsio guztiak garatu ahal ditugulako.

Gaur egunean ondo dakigu berdintasuna ezinbestekoa dela herrien garapenerako, biztanleen erdia diren emakumeen parte-hartzerik gabe, mundu zuzenago, solidarioago, jasangarriago eta baketsua eraikitzea ezinezkoa baita.

Berdintasunak aberasten gaitu, emakumea edo gizona izateagatik existitzen diren murrizketarik gabe askatasun eta autonomia gehiagoz bizitzako dimentsio guztiak garatu ahal ditugulako”

Konpartitu behar ditugun garai hau eta mundu hau gure ametsetakoak izatetik hurbilago egon daitezen, denon artean, era solidario eta arduratsuan elkarrekin laguntzeko momentua da.

Gida hau irakurtzera gonbidatzen zaitugu. Bertan bai berdintasunarekin duzun konpromisoa zuretzat, zure ingurukoentzat eta gizateri osoarentzat zergatik den ezinbestekoa ulertzeko, bai historian zehar eraikiz joan garen prozesua eta egiteko falta zaigun bidea baloratzeko gakoak emango dizkizugu. Berdintasunaren esanahia azaltzen saiatuko gara. Zerbait gai gogoratuko ditugu: emakumeen eskubideen historia, berdintasunean oinarritutako maitasuna zergatik den garrantzitsua, sexu-mugarik gabeko bizitza nola proiektatu, zer gertatzen den emakumeekin munduan, zein lege onetsi diren berdintasuna egiazkoa izateko edo mintzairan emakumeak eta gizonak aipatzeko garrantzia.



Nola definitzen dugu emakume eta gizonen arteko berdintasuna?

Berdintasun hitza Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren funtsezko baloreetako bat eta gure Konstituzioa oinarritzen duten printzipioetako bat da. Hain garrantzitsua da ezen gure gizartearen eta, horrenbestez, gure bizitzaren antolakuntza dimentsio horren arabera ezartzen den. Baina ez da nahastu behar berdintasun hitza emakumeak eta gizonak berdinak garelako ideiarekin.

Batzuetan berdintasun hitza oker interpretatzen da, bere esanahia neska eta mutilen arteko desberdintasunak ezabatu eta berdin-berdinak egitea edo neskak mutilak bezalakoak izaten saiatzea balitz bezala. Inola ere ez. Berdintasunak diferentzia baloratzen du, berez naturala delako, baina ez diskriminazioa, bidegabekeria, indarkeria eta sexu batek bestea menperatzea esan nahi duelako.

Pertsona bakoitza bakarra eta ezberdina da, eta aniztasun honek mundua trukatu eta ikasteko leku bihurtzen du. Berdintasunaren alde egoteak ez du esan nahi neska eta mutilen arteko desberdintasunak ukatzea, balore berdina eman eta diskriminazioa eliminatzea baizik.





Berdintasuna...

- ✎ Legearen aurrean era berean tratatuta izatea bezain zuzena da.
- ✎ Gizarteko arlo guztietan aukera berdinekin parte hartu ahal izatea bezain garrantzitsua da.
- ✎ Zure bizitzaz eta segurtasunaz edo maite dituzun pertsonenaz kezkatuta ez egotea bezain beharrezkoa da.
- ✎ Sexuarengatik diskriminazioa edo jazarpena ez pairatzea bezain funtsezkoa da.
- ✎ Autonomia eta askatasuna sentitzea bezain baliotsua da.
- ✎ Errespetuan oinarritutako erlazioak eraikitzea bezain konplexua da.
- ✎ Bizitza pertsonal, familiar, sozial edo profesionalean eskubideak eta betebeharrak konpartitzea bezain zentzuduna da.
- ✎ Bai emakumezkoek bai gizonezkoek baloreak, ezagupenak eta mende askotako historiak utzi dizkigun esperientziak, gizateriaren garapenerako ezinbestekoak direnak, eramaten ditugula aitortzea bezain oinarrizkoa da.
- ✎ Geure errealitatea berriro sortu eta emakumea edo gizona izateagatik inolako oztoporik sentitu gabe gure ametsak bete ahal ditugula asmatzea bezain interesgarria da.
- ✎ Gizaki guztiok gure ahalera afektibo, intelektual, artistiko edo fisikoak garatzeko aukera edukitzea bezain berezia da.

Honi guztiari buruz mintzatzen ari gara. Emakume edo gizon gisa batu ditugun esperientzia, ahalmena eta balorea aitortuz osorik bizitzeaz, alegia.

Berdintasunaz hitz egiten dugunean, emakume edo gizon gisa batu ditugun esperientzia, ahalmena eta balorea aitortuz osorik bizitzeaz mintzatzen gara ””

Emakumeen eskubideen historia

Historian zehar emakume asko eta asko errebelatu egin dira, bakar-ka edo taldeka, euren bizitzari buruz erabakiak hartzea, Estatuko gaietan parte hartzea eta euren pentsamenduak zabaltzera ausartzea ere bidegabeko diskriminazio batek eragozten zizkielako. Faraoi-erregina Hatshepsut, Egiptoko XVIII. Belaunaldikoa (K. a. 1479-1457), Akitaniako Leonor (frantziarra, 1122-1204), Malinali (erdialdeko Amerikako indigena), Florence Nightingale (ingelesa, 1820-1910) edo Clara Campoamor (espainola, 1888-1972) bezalako emakumeen biografiak justizia eta egia bilaketan emakumeek eduki duten adorea lekuko dira. Emakumeen askatasuna posible dela adierazi duten emakumeak existitu dira betidanik eta horrela erakutsi dute trobalari emakumeek, beginek, preziosek eta garai bakoitzeko feministek.

Emakumeen iraultzako momentu hunkigarrietako bat Iraultza Frantsesa da. Oraindik gaur egun kezkatzen gaituzten gai askori buruz eztabaidatu eta disputatzen zuten, hezkuntza edukitzearen beharra, autonomia, etxeko indarkeria eta prostituzioa ezabatzea, besteak beste. Kaleetan Pariseko emakumeek ogi eza eta janarien prezio altuen kontra protestatzen zuten. 1789ko abuztuan, Bastilla hartzetik hilabete batera, Asanblada konstituziogileak Gizakiaren eta Hiritar Eskubideen Deklarazioa iragarri zuen. 1789ko urriaren bostean eta seian, sei mila inguru emakume paristar Versaillesera joan ziren eta errege-erregina Parisera



eramatea lortu zuten, hor biztanleen arazoak baztertzea zailago izango zitzaielako. Eta hain jarduera kementsua egin zuten ezen Iraultza-batzordeek etxetik irtetea debekatu baitzieten, arriskutsua zela aitzakiarekin. Bi urte geroago, Olympe de Gougesek berriki ezarri ziren gizonetzkoen eskubideen erantzun feminista bat argitaratu zuen, *Emakumeen eta Hiritarren Eskubideen Deklarazioa*. Baina garai horretan emakumeen ahalegin guztiak porrot mingarri batean bukatu egin ziren.

Nolanahi ere, Iraultzako feministen eskakizunak sufragistek hartu zituzten berriro, munduko bazter guztietatik ibili zen berdintasunarenugarra berriz piztuz eta bozkatzeko eskubidea emakumeentzat eskatuz. Sufragistek arrazoi handiarekin pentsatzen zutenenez, botoaren bidez politikako erabakietan parte hartzea lortuz gero Parlamentura sartzea ere lortuko zuten eta horrela senarren jabetzat hartu eta hezkuntzara edo autonomia eskaintzen zuten edozein lanbidera sartzen oztopatzen zituzten legeak alda zitzaketen.

Hala ere, historia ez zen momentu horretan amaitu. II. Nazioarteko Gerraren ostean, Simone de Beauvoirrek *Bigarren sexua* izeneko liburu bat idatzi zuen. Bertan hauxe baieztatu zuen: “Emakumea ez da jaiotzen, egiten da”. Esaldi horrekin honako hau azpimarratu nahi zuen: emakumeek ez dute erabakitzen nolakoak izan nahi duten, gizarteak baizik. Pentsa ezazue nolako garrantzia duen baieztapen honek! Emakume eta gizonen izaera naturak ezarrita dagoelako sinesmena atzera uzten zuten eta hori determinatzen duena kultura


Botoaren bidez politikako erabakietan parte hartzea lortuz gero Parlamentura sartzea ere lortu eta horrela senarren jabetzat hartzen zituzten legeak alda zitzaketela pentsatzen zuten emakumeek”

dela azpimarratzen zuen. Simone de Beauvoirren gogarteak belaunaldi berrientzat erreferente garrantzitsua izan ziren: II. Nazioarteko Gerraren ostean boto-eskubidea eta heziketa lortu eta eskakizun berriak hasi zituzten emakumeen alabak, euren amatasuna kontrolatzeko eskubidea, politikan parte hartzea edota emakumeen kontrako gizonen indarkeria kondentatzea bezain inportanteak diren gaiak kontuan hartuz.

Mende askotan zehar bidegabeko egoera honen aurka borrokatu duten mundu osoko milaka emakumeei esker emakume eta gizonen arteko berdintasuna estatuko nahiz nazioarteko gai-zerrenda politikoan sartu zen. Izan ere, 1975ean NBEk Emakumearen I. Mundu-konferentzia antolatu zuen Mexikon. Urte hori bera Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zen. I. Mundu-konferentzia horretatik jarduera-plan bat jaio zen. Plan horren emaitza NBEko Batzar Nagusiak “Emakumeen Laguntzarako Nazio Batuen Hamarkada” (1975-1985) izan zen.

Hortik aurrera lau mundu-konferentzia izan dira. Azkenekoa Pekinen izan zen, 1995ean, eta han emakumeen eskubideak giza eskubideak direla adierazi zen. Pekinen onetsi zen Konpromisoen Gutuna New Yorken ere berronetsi zen 2005ean eta beste mundu-konferentzia bat egingo da 2010ean.

Emakumeen eskubideen aldeko borrokaren historia oraindik ez da amaitu eta bere bukaera idazteko dago. Sufragisten



konkistetatik ehun urte baino gehiago igaro arren, boto emateko edo hauteskundeetan hautatuta izateko eskubidea onartzen ez duten herrialde batzuek existitzen jarraitzen dute (Garapenerako Nazio Batuen Programa, GNBP: 2003ko Giza Garapenari buruzko Txostena). Zure inguruko emakumeen historia eta zeurearena, gizonenarekin batera historia dira. Ez da ezer ahantzirik geratu behar.

Emakumeen eskubideen aldeko borrokaren historia oraindik ez da amaitu eta bere bukaera idazteko dago. Boto emateko eskubidea ere onartzen ez duten herrialde batzuek existitzen jarraitzen dute ”



Nola erabaki nire bizi proiektua tranpa sexistetan erori gabe

Bizi proiektu bat eraikitzea zer naizen eta zer interesatzen naizen sakonki pentsatzean datza. Ondo sentiarazten nauten jardueretan pentsatzea da. Egunen batean edukiko dudan lanbidea aurkitzeko behar diren lehentasunak, trebetasunak eta ahalmenak jokoan jartzea. Nire bizitza afektibo eta pertsonala nolakoa izango den sumatzea. Nola eta norekin bizi izango naizen eta nola beteko dudan nire denbora imajinatzea...

Bizi proiektu bat erabakitzea bete nahi ditugun ametsetara eramaten gaituzten bideak dituen mapa bat marraztea da, eta zein aukera ditudan eskura eta zeintzuk dagozkion ni naizenari ikasteko lagungarriak diren ezagupenak, esperientziak, erreferenteak eta adiskideak lortzen ditugun bitartean proiektu hau diseinatuz joango gara.

Oso urrun ez dagoen garai batean emakumeen etorkizuna jaiotze bezain laster zehazten zen, eta gizarteek oso aukera gutxi uzten zizkien. Gaur egun, zuek neska-mutilek arlo profesionalean eta pertsonalean bizitzak eskaintzen dizkizuen oportunitate anitzetan hautatzeko ahalmena eta askatasuna dituzue. Nolanahi ere, kontu handiz hausnartu behar duzue zuen aukerei buruz. Emakumeak arlo pribatuari dagozkiola





Estereotipoen pisua hain handia da ezen beste pertsonak nola ikusten ditugun determinatu eta beste sexukoak bagina gure desirak ezberdinak izango lirakeela pentsatzera eraman gaitzaketen ”



eta gizonak esparru publikoari esaten zuen dikotomia ia guztiz apurtuta egon arren, iraganetik jasotako zenbait erreferentzia sozialek existitzen jarraitzen dute. Estereotipo sexista hauek eredu zehatz batzuetan atxilotzen gaituzte eta ikaragarritzko eragina dute gure lanbide-eta bizitza-hautaketetan, bizitzan, harreman pertsonal eta sozialez beteriko bizitzaz gozatzea eta existentzia oso eta harmonikoa edukitzeko behar diren esperientzia, zaintza eta etxeko lanak bere neurri egokian estimatzea, lanbide bat edukitzea bezain garrantzitsuak direla kontura ez gaitezela lortuz.

Estereotipoen pisua hain handia da ezen beste pertsonak nola ikusten ditugun determinatu eta beste sexukoak bagina gure desirak ezberdinak izango lirakeela pentsatzera eraman gaitzaketen. Duela gutxi egindako ikerketa bat estereotipoen eraginaren adibide argi bat izan daiteke. Osasun-zientziak edo humanitateak ikasten badituzte neskek

emakumezkoagoak direla eta mutilek batxilergo teknologikoa ikasiz gero gizonezkoagoak direla bigarren hezkuntzako ikasle gehienen iritzia dela erakusten da ikerketa horretan¹.

Bazenekien... neska gehienek zaintzarekin erlazionatutako lanbideak aukeratzen dituztela? Eta mutilek lan teknikoak edo gizonezkoen zeregin tradizionalekin erlazionatutakoak nahiago dituztela? Eta senitar-tekoak zaintzeko lanaldi-laburtzea edo eszedentzia eskatzen duten gehienak emakumeak direla? Beraz, ikerketek erakusten dute neskek, urte batzuen buruan nolakoak izango zireten imajinatzen duzuenean, lanaz gain, afektuak, amatasuna edota egin nahi izango zenituzketen jarduerak ere ikusten dituzuela. Mutilak, aitzitik, ordaindutako lan profesionalarekin zerikusia duten aspektuetan zentratzen zirete.

Ikerketek erakusten dute neskek, urte batzuen buruan nolakoak izango zireten imajinatzen duzuenean, lanaz gain, afektuak, amatasuna edota egin nahi izango zenituzketen jarduerak ere ikusten dituzuela”



1. <http://www.educacion.es/cide/espanol/publicaciones/colecciones/investigacion/col101/col101pc.pdf>



Nahi duzun pertsona izateko eta zure bizi proiektu propioa sormenezko eran eraikitzeko aukera duzu. Hau lortzeko:

- ✎ Posibilitate guztiak aztertu, emakume edo gizon batengandik zer espero behar den esaten dizuten estereotipoen aurrean aukera kritikoa edukiz. Ez ahaztu errealista izatea eta testuingurua eta egoera bakoitzaren baldintzak kontuan hartzea.
- ✎ Zure ahalmen, itzaropen, lehentasun eta trebetasunak zeintzuk diren ondo jakiteko har ezazu behar den denbora osoa.
- ✎ Zure lana egiteko prest egon, baina eguneroko bizitzak eta bizikidetzak eskatzen dituzten eginbeharrak egiteko ere bai.
- ✎ Zure etorkizunari buruz pentsatzen duzunean ez ahaztu lanbide arloa kontuan hartzeaz aparte, bai mundu pertsonala eta familiarra bai zure parte-hartze sozial eta komunitarioa ere kontuan hartzea.
- ✎ Zure nahiak zeintzuk diren zeure buruari galdetu egunero eta lanean hasi lehenbailehen.



Gure gorputzetan zoriontsu bizitzen

Berdintasunean bizitzeak gure ahalmen fisiko eta afektiboak aske garatzeko aukera edukitzea dakar. Horretarako lehenengo pausua gure gorputza onartzea da. Egunero publizitate-paneletan, aldizkarietan eta telebistan agertzen diren gorputzek altuera txiki kutun, sudur harro izugarri, belarri handi miresgarri, begi hondatu interesgarri edo bihurgune okertsuei lekurik uzten ez dien edertasunaren eredu mugatu bat errepikatzen gonbidatzen gaituzte. Dena den, batzuetan lotsatzen gaituzten ezaugarri horiek xarma berezia, edertasun paregabe eta bararra, ematen digute. Kontuan har ezazue zuen lagun-taldean oso gutxitan begiratu edo maitemintzen zaretela pertsona berberetaz. Olerkari uruguaitar jakintsu batek esaten zuenez: “Gorputz bakoitzak ditu / bere harmonia eta / bere disonantzia / batzuetan / harmonien batura / ia izan daiteke / melenga / beste batzuetan / disonantzien / multzoak / edertasuna baino / hobe dena egiten du”.

Gure egoitza den gorputzak, fase eta eraldaketa batzuk izango baditu ere, bizitza osoan zehar lagunduko gaitu. Horregatik bera onartzen, berarekin harmonian bizitzen, zerk egiten dion ondo edo txarto eta zerk sortzen dion gozamena, hitz gutxitan esanda, bera zaintzen ikastea funtsezkoa da. Gure gorputzen adiskide bihurtzea, haiengan erosotasunez



bizitza, naturaltasun eta xarma gehiago edukitzeko ez ezik, berdintasunean bizi eta zoriontsuak izateko ere ezinbesteko baldintza da.

Hona hemen gorputz guztien ezaugarri komun bat: eskaintzen dizkigun gozatzeko aukera amaigabeak. Zuen bizitzako garai hau asmatzekoa, esperimentatzeko, ireki egotzeko eta aurrerapen afektibo-sexualarena da, eta aurre egiteko konplexuz betetzen zaituzteten “behar duzu” horiek guztiak atzera uztea oso garrantzitsua da: “gutxi gora behera izan beharko nuke...”, “pertsona mota hori gustatu beharko litzaidake”, “sentimendu hau edo beste hori izan beharko nuke”, “hau edo hori gustatu beharko litzaidake”, “hau edo hori egin beharko nuke”. Onartu behar duzuen “beharko nuke” bakarria benetan ondo egiten dizuena, zuei eta zure ingurukoei kalte egiten ez dizuena eta zoriontsu egiten zaituztena kontu handiz hausnartzetik etortzen dena da. Berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzeke beste pertsonak nahi duena, berari gustatu eta ondo egiten diona eta zoriontsu egiten duena errespetatu behar da. Era berean, ez dugu ahaztu behar informazioa eta prestakuntza behar ditugula erlazioak batetik positiboak, osasungarriak eta arduratsuak izateko eta, bestetik, nahi ez ditugun ondorioak saihesteko.

Beraz, autoezagutza, komunikazioa, errespetuaren dosi handiak, garen bezala maitatzea, prestakuntza eta informazioa gure gorputzak aske gozatzeko osagai magikoak dira.

Gorputza gara eta horri esker bizitzeko zoriontasuna senti dezakegu zaintzen badugu.

Berdintasunean
oinarritutako
harremanak eraikitzeke
beste pertsonak nahi
duena, berari gustatu eta
ondo egiten diona eta
zoriontsu egiten duena
errespetatu behar da ””

Ondo maitatzen ikasten

Gizon-emakumeen berezko ezaugarrietako bat maitatzea da, eta beharbada denon ustez garrantzitsuena dena izan daiteke, zoriontsu edo zorigaiztoko gu egiteko ahalmena duelako. Maitatzeak gu zoriontsu egiteko sekretua ondo maitatzen ikastea datza. Agian galde dezakezue: “akaso txarto maitatu egin daiteke?” Zoritxarrez gure haurtzaroko ipuin, film eta mitoei “printze urdin” eta “loti ederrengan”, “laranja erdi” eta sakrifizio handietan oinarritutako maitasunaren ereduak irakatsi digute. Ondo pentsatzen baduzue, “laranja erdiak” esan nahi du erdizka eginak garela, osatugabeak osatzen gaituzten bikote-kide bat aurkitu arte, gure bizitzari zentzua ematen dion norbaitekin topatu arte. “Laranja erdiak” maitasuna beste pertsona batekin urtzea



dela pentsarazten digu. Halaber, “printze urdinaren” mitoak neskak izaki pasibo gisa erakusten ditu, zentzurik gabeko bizitza edukirik, asperralditik liberatu eta babesa eskaintzen dien zaldun ibiltariaren zain egonik. Pelikuletan edo telesaietan aurkitzen ditugunak bezalako mito horiek menpekotasuna faboratzen duten bikote-jokabide posesiboak sustatzen dituzte. Zure bikote-kidea zure jabetza balitz bezala tratatzeak indarkerian amai daitezkeen portaera jeloskorak faboratzen ditu.

Konfiantzan, komunikazioan eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzeak ziurtasun-gabezia horiek suntsitzen lagundu ahal digu.

Maitatzea arte bat da. Eta arte guztien moduan, ikasteko prozesu iraunkorra da. Horregatik denbora, esfortzua, diziplina, pazientzia eta ilusio



handia eskatzen ditu. Horrela beste pertsonarekin komunikatzen, gaizkide izaten, fidatzen, egokia denean harropuzkeria irensten eta behar denean exijitzen, konplizitatean negar eta barre egiten eta, batez ere, zanpatu gabe besarkatzen, hau da, aske eta beldurrik gabe maitatzen ikasten dugu.

Ondo maitatzea berdintasunean maitatzea da. Horretarako beste pertsona izaki osotzat hartu behar da, burujabea, bere bizitza propioaren jabea, izaki erreal, berezko bertute eta akatsekin. Imajina ezazue iraganeko eta gaur eguneko esperientziez, adiskidetasun eta erlazioez eta, era berean, etorkizunari buruzko ametssez, gustuez, zaletasunez, interesez, posibilitatez eta garen moduan gaitezela, bakarrak eta bereziak alegia, eragiten duen guztiaz beteriko motxila batekin den-denok heltzen garela harremanetara.

Era egokian maitatzeak pertsona bakoitzaren izaera berezia ulertzea eta errespetatzea esan nahi du.



Ondo maitatzea berdintasunean maitatzea da. Horretarako beste pertsona izaki osotzat hartu behar da, burujabea, bere bizitza propioaren jabea, izaki erreal, berezko bertute eta akatsekin ”

Zuk ere lagun dezakezu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko harremanak eraikitzen

Berdintasunean bizitzeko indarkeriaren manifestapen guztiak arbuiatu behar ditugu.

Biolentzia gatazka bat konpontzeko fikziozko modu okertua da. Gurea bezalako gizarte anitz eta konplexu batean bizitzeak egunero gatazkazko egoeren aurrean jartzen gaitu. Baina ez dugu konfliktoa mehatxutzat hartu behar, gizartean bizitzeko ondorio naturaltzat baizik. Horregatik berarekin bizitzen eta era baketsuan konpontzen ikasi behar dugu. Hori lortzeko kontu batzuk ezinbestekoak dira:

- ✎ Beste pertsonak errespetatzen ikastea. Errespetua bizikidetzaren oinarria dela gogoratzea.
- ✎ Ez da auresuposatu behar egiaren jabetza osoa dugula, egia absolutuak existitzen ez direlako.
- ✎ Beste pertsonak esan nahi dutena baloratu eta entzutea, guztiok esateko gauza asko dauzkagu eta.
- ✎ Besteen lekuan jartzea egoerak hobeto ulertzeko.



Indarkeria gatazka bat konpontzeko era okertua bada, are gehiago konfliktua gehien interesatzen zaizkigun pertsonen artean gertatzen denean. Ikusi dugunez, “printze urdina” eta “laranja erdia” bezalako mitoek maitasuna fusioa eta jabetzaren sinonimoa dela eta jelsiek maitasunaren maila islatzen dutela pentsatzera eramaten gaituzte. Seguruenez “kexarazten hau, maite hau” atsotitza ezagutzen duzu, bada, esaldi hau maitasunari buruzko ideia horien arrakastaren adibide nabaria da. Maitasunaren kontzepzio hori okerra eta kaltegarria izateaz gain, arriskutsua ere da. Berdintasunean maitatzeko gatazka biolentziatik bereizten duen “marra gorri” bat existitzen dela argi eta garbi eduki behar da.

Gizonek marra hori zeharkatzen dutenean, bikote-kideen autonomia pertsonala ukatuz, emakumeekiko indarkeria gertatzen da, adibidez nola jantzi, norekin igaro aisialdia, non egin lan, noiz eta nola eduki sexuharremanak edota seme-alabak eduki ala ez erabakitze eskubidea ukatzen dietenean, edo baloratzen ez dituztenean, ezkutatu edo haiek gizonenak balira bezala ukatzen dituztenean, euren iritziak baztertzen dituztenean, eta gizonen nahiak betetzen ez badituzte maitatzeari utziko diotelako xantaia egiten dietenean.

Berdintasunean
maitatzeko gatazka
biolentziatik bereizten
duen “marra gorri” bat
existitzen dela argi eta
garbi eduki behar da ””



Inork ez dauka nahi duen modura bikote-kidea moldatzeko eskubiderik eta, halaber, gure izaera aldatu edo gure askatasuna mugatu nahi digutenean edo errespetatzen ez gaituztenean mugak jartzeko eskubidea daukagu guzti-guztiok. Inolako indarkeria gure erlazioetan sartzea onartzen badugu, gutako inork ez duen mundu desorekatu hau erreproduzitzen jarraituko dugu. Charo Altabek esaten digunez: “Biolentzia prebenitu eta erlazio harmoniko eta zuzenak edo, batzuetan, zuzenak soilik ezartzeko berdintasunaren ikuspuntutik afektuak konpartitzen ikastea ezinbestekoa da”.

Indarkeriarik ezaren aldeko apustua eginez berdintasunezko eta errespetuzko erlazio libre, aberasgarri eta zoriontasunaren emaeleak bermatzen ari gara.

Gogoan izan indarkerian inoiz ez dagoela maitasunik.

Gela propio bat eta erantzukidetasunerako espazioa

Virginia Woolfek, literaturari buruzko kurtso batean, idazteko independentzia ekonomikoa eta gela propio bat edukitzeko beharra planteatu zien bere ikasleei. Bizitzan zehar komunikazioa, erlazioa eta beste pertsonarekiko interakzioa eskatzen dituzten mota askotako jarduerak egiten egongo zarete askotan arlo publikoan. Ziur aski momenturen batean Virginia Woolfek aipatzen zuen gela horretara itzultzeko beharra sentituko duzue zuen pentsamenduekin elkartzeko, atsedean hartzeko, zuen gustuko jardueretan aritzeko edo bakarrik denbora pasatzen uzteko... Hausnartzeko, atsedean hartzeko, nondik goazen eta zergatik pentsatzen gelditzeko, benetan nahi dugunaz geure buruari galdetzeko edo eragozpeni nola aurre egin pentsatzeko aparteko denbora edukitzeak lagunduko gaitu munduan.

Etxeko esparrua gela propio hori bezain garrantzitsua da. Zaintza eta pertsona hurbilekiko harremanekin erlazonatutako bizitzaren funtsezko zati bat egiten da han. Tradizionalki etxeko espazioaren arduradunak emakumeak izan dira; eta, neurri handi batean, horixe da oraindik gaur egungo errealitatea, aldaketa sozial asko izan arren. Hala eta guztiz ere, emakumeak laneko esparruan sartzea gertakizun erabakigarria izan da bai etxeko lanak bai haurren edo behar dutenen zaintza

Ziur aski momenturen batean zuen pentsamenduekin elkartzeko, atsedean hartzeko, zuen gustuko jardueretan aritzeko edo bakarrik denbora pasatzen uzteko beharra sentituko duzue ... Hausnartzeko aparteko denbora edukitzeak lagunduko gaitu munduan ”



eta arretaren bidezko banaketa egitea beharrezkoa zela ikusten hasteko.

Emakumeek etxeko atea zeharkatzen badugu lan mundura joateko, egoki eta zuzena da gizonek kontrako bidea egitea eta lan mundutik etxerako bidea korritzea.

Bidaia honek gu guztiok aberastu gaitu, etxeko eta afektuen giroan gertatzen dena garapen pertsonalerako oinarrizkoa delako. Gela propio hori edo maite ditugun pertsonetik harremanak ahazten baditugu bizitzak bere aberastasuna galtzen du. Bide horretatik “erantzukidetasun” hitza agertzen da. Familia-nukleoan bizi diren pertsona guztien artean etxeko eginbeharrak betetzeari dagokio hitz hori; hau da, bizitza eta bizikidetz




mantentzeko lanetan guztiok lagundu behar dugu, bakoitzak bere ahalmenen arabera.

Inork ezin du esan bizitza oso bat duela gure lan profesionalaren denbora jarduera pribatuekin bateragarri egiten ez badu, pentsatzeko ahalmen guztiak eta emozioak garatu, zaintza sentitu eta eman, eta beste pertsona batzuekin afektiboki erlazionatu behar dugulako. Halaber, gure behar propioak ahaztuz beste pertsonak eksklusiboki zaintzen aritzeko posibilitatean pentsa dezakegu, baina hori ere ez litzateke bidezkoa izango... Horregatik bizitza laboral eta pribatua, pertsonal eta sozialaren arteko oreka era arduratsuan aurkitu behar dugu.

Hiritarrak garen ikuspuntutik erantzukidetasuna ere dago, gure idealak betetzen dituen gizarte bat lortzeko guztiok parte hartzea behar duen hirugarren espazio bat existitzen delako. Esku hartzeko modu asko

Inork ezin du esan bizitza oso bat duela gure lan profesionalaren denbora jarduera pribatuekin bateragarri egiten ez badu ”



daude, elkarte batean, Gobernu Kanpoko Erakunde batean, alderdi politiko batean, sindikatu batean edo, besterik gabe gure lagunei edo auzoan laguntzen. Gizartean parte hartzen dugunean errealitatearen norabidean eragingarriak izango diren aldaketa kolektiboko prozesuak konparti ditzakegun beste pertsona askorekin harremanetan sartzen gara.

Horrela dela, bizitzaren dimentsio guztiei erantzuten diegu erantzukidetasuneko jarreraren bidez eta, honela jardunez, giza erlazioen bideetatik joaten garen bitartean pertsona osoago, solidarioago eta konprometituago sentituko gara.

Gizartean parte hartzen dugunean errealitatearen norabidean eragingarriak izango diren aldaketa kolektiboko prozesuak konparti ditzakegun beste pertsona askorekin harremanetan sartzen gara ”

Zergatik da hain garrantzitsua mintzaira inklusibo eta ez sexista erabiliz hitz egitea?

Erlazionatu eta pentsamenduak sortzeko pertsonak hizkuntza erabiltzen dugu. Zerbait aipatzen dugunean, irudikatuta dagoena nolabait erreal egiten zaigu. Esate baterako, zerura begiratzean izarren baten izena badakizu, izar hori ez da berriro izango beste astro bat milioika astroen artean. Besteetatik bereizi duzu. Bere izena ezagutzeak ortziaren esperientzia berri bat eskaintzen dizu. Lengoaiak errealitatea birsortzen du eta, aldi berean, errealitatea sortzen laguntzen du: arrazoi honengatik mintzaira da hain inportantea.

Hitzek izendatzen gaituzten moduan, identifikatu ere egiten gaituzte. Emakumeak eta gizonak izendatzen ditugunean, euren existentzia azpimarratzen dugu. Baina, zer gertatzen da hitzek zuri buruz hitz egiten ez dutenean, estaltzen zaituztenean edo aipatzen ez zaituztenean?

Gaztelaniaz, euskaraz ez bezala, emakumeak eta gizonak izendatzeko maskulinoa eta femeninoa daude, baina maskulinoa





generiko gisa erabiltzeko joera dago, sexu biak hartuko balitu bezala, eta hori ez da egia. Errealitatea ikustean emakumeen eta gizonen presentzia nabaritzen dugunean, maskulinoa neutro gisa erabiltzea zailagoa da, benetan generikoa ez delako. Batzuen edo beste batzuen presentzia baztertzea deseroso egiten zaigu. Adibidez, “mekanikako klasean 25 mutil eta 2 neska daude” esaten baduzu, ikasgaiaren egoerari buruzko datu asko ematen ari zara. Horren orde “mekanikako klasean 27 ikaskide daude” esan bazenu, maskulinoak generikoarena egiten, emandako irudia mutilen klase batekoa izango zen, neskarik gabe, eta neskak errealitatetik desagertuko ziren. Ulertzen al duzu orain zergatik den hain garrantzitsua femeninoa eta maskulinoa erabiliz hitz egitea?

Gaztelera “bomberos, mineros, jueces, niños, profesores, padres, directores, hombres...” bezalako maskulinoak erabiltzen dira generikoak direla esanez, baina egiatan emakumeen presentzia estaltzen dute. Gizateriaren erdia garen emakumeok ez dugu desagertu nahi maskulinoaren atzean. Hitzen bitartez ezagutzen ditugun existentzia eta esperientzia propioak ditugu. Mintzatzen garen moduan utzi nahi ditugu gure aztarnak. Egunkarrietan, ikasten ditugun liburuetan, zinemaren kartel argitsuetan, museoetan, testu liburuetan, kalean egiten ditugun komentarioetan eta gure eguneroko bizitzako keinu bakoitzean presente egon nahi dugu. **Hizkuntzak bakarrak dira baina bi sexu daude.** Hori dela eta, bi sexuak irudikatu behar ditugu.

Gai honetako interesgarriena ekintza mekanikoa ez dela konturatzea da. Lengoaiak (idatzia, mintzatua edo irudien bidezkoa) gure pentsamendua eta gertaeren, egoeren edo sentimenduen buru-irudia islatu baino ez du egiten: horretarako erabiltzen dugun tresna da. Horregatik, gure munduaren ikuskera aldatzearen berehalako ondorioa gure komunikazioaren edukia aldatzea izango litzateke.


Mintzatu, idatzi eta pentsatu femeninoz eta maskulinoz beti. Errealitatea sexista ez izatea faboratzen duzu horrela, hitzen bitartez bai emakumeak bai gizonak beti presente eginez.

Mintzatu, idatzi eta pentsatu femeninoz eta maskulinoz beti. Errealitatea sexista ez izatea faboratzen duzu horrela ”

Berdintasunerako legeak

XXI. mendeko hasieretan egon arren, emakumeen eskubideetan lortutako aurrerapenak ez du eskaintzen ikuspegi positibo eta baikor bat. Ziur aski, emakumeekiko diskriminazioak existitzen jarraitzen duela komentatzen baduzu zure inguruan, sinesgaiztasunezko, haserreko edo, agian, ukapenezko erantzuna emango dizute. Halere, datuek kontrakoa adierazten dute: emakumeek baldintza berdinetan eskubideak erabiltzea oztopatzen duten eragozpen askok existitzen jarraitzen dute. Bestela esanda, emakumea izateak esan nahi du gizonek baino muga eta oztopo gehiago aurkitzen dituztela.


Nahiz eta gaur eguneko emakumeek prestakuntza-maila hobea-goak eduki, gehiago lan egin eta zaindu, eta delitu gutxiago egin, emakume eta gizonen empleguan haustura sakon bat erakusten dute datuek. Emakumeek denbora gehiago igarotzen dute langabezia, euren lanpostuak behin-behinekoagoak eta aintzat hartze gutxiagokoak dira eta, ondorioz, gutxiago irabazten dute. Bestalde, etxeko, semeen eta menpeko pertsonen zaintzaz arduratzerakoan, emakumeek gizonek baino askoz lan gehiago egin behar dute. Hezkuntza, politika, kultura, kirolak edo zientzia bezalako beste arlo batzuetan emakumezkoen izenen urritasun nabaria dago eta, gainera, zuzendaritza postuak edo tradizionalki gizonenak izan diren espazioak



lortzea etengabeko erronka da emakumeentzat. Emakumeenganako in-darkeria arazo ikaragarria da, nesken salerosketa edo prostituzioa beza-la. Emakumeen irudia eta gorputzaren trataera sexistak *objektu* bihurtzen ditu. Horregatik inmigrazioa, elbarritasuna, zahartzaroa... bezalako arrisku egoeretan emakumeek diskriminazio bikoitza pairatzen dute. Gainera, emakumeenganako diskriminazioak pobrezia, injustizia eta baztertzea sortzen ditu. Gertakizun hauek guztiek argi eta garbi era-kusten dute, itxuraz emakumeak eta gizonak legezko inguru berean egon arren, soilik emakumeak izateagatik emakumeak baztertzen dituzten delitu, usadio eta jarrera maskulino askok bizirik jarraitzen dutela gure gizartean.

Hori dela eta, bai nazioarteko arloan (Nazio Batuak eta Europar Bata-suna) bai estatukoan, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bu-rutzeko neurri batzuk hartu dira.

Espainian onetsitako legerik inportanteenak hauexek dira:

 **Emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko legea.** Arau honen helburua berdintasuna errealitate bihurtzea da eta hezkuntza, justizia, lana edo komunikabideak bezalako gizarte-arlo guztiak ikutzen ditu. Jarduera-ildoen artean enpresetako berdintasune-rako planak hartzen ditu, bateragarritasunaren onarpena lehen mai-lako lan-eskubide gisa finkatzen du eta erantzukidetasuna sustatzen du gizonei aitatasun-baimen berri eta eskusiboa ezarriz.



- ✎ **Mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko legeak** ongizatearen estatuaren laugarren zutabea (osasuna, hezkuntza eta eskubide pasiboen onarpenarekin batera) ezartzea ekarri du.
- ✎ **Genero indarkeriaren aurkako osoriko legea.** Gaur egungo gizarteak dituen arazo larrietako bat emakumeen kontrako biolentzia eraztea da. 1993an Nazio Batuen Erakundeak honela definitu zuen emakumeen kontrako biolentzia: “kalte edo sufriendu fisiko, sexual edo psikologikoa sor dezakeen edozein indarkeriazko ekintza edota horrelako ekintzekin mehatzatzea, hertsadura edo askatasun-gabetze bidegabea, bizitza publikoan nahiz pribatuan”.

Gogoratu behar dugu hurrengo urteetako erronka nagusia berdintasun formal/legaletik berdintasun erreal/eragingarrira pasatzea dela, eta horretarako emakume eta gizonen arteko berdintasun osoa munduko inolako arlo edo lekuetan aurkitzea ezinezkoa dadila eragiten duten sinesmen, beldur, estereotipoez... osatutako oztopo ikusezinak, icebergeko zati ezkutua, desagertarazten lagundu behar dugu guzti-guztiok.

Gainetik nahi dugu berdintasuna, hau da, zuzentzat hartzen ditugun kontuetan.

Gogoratu behar dugu hurrengo urteetako erronka nagusia berdintasun formal/legaletik berdintasun erreal/eragingarrira pasatzea dela, eta horretarako oztopo ikusezinak desagertarazten lagundu behar dugu guzti-guztiok”

Historian itzala utzi zuten emakumeak

Euren jakinduria, gaitasunak eta esfortzua jakintzaren arlo desberdinetan gizarteari eman zizkioten emakumeek beteta dago historia. Lerro gutxi hauetan izen gutxi batzuk baino ezin ditugu gogoratu, baina zientzia, historia, literatura, arte, fisika edo matematikako liburuak birpasatzen dituzunean azter itzazu atzoko eta gaurko emakumeen ekarpenak, eta euren biografiak eta interesak. Zure munduaren kontzepzioa gizateriaren beste erdiaren esperientzia eta ekarpenez osatzen duzunean kontzepzio hori ikaragarri aldatzen dela konprobatzeak harrituko zaitu.

Jarraian zehazten dira ezagupen inportanteekin ekarpen handiak egin zituzten emakume batzuen izenak:

Alexandriako Hipatia (K. o. 370-415). Greziar jatorriko filosofo egiptoar hau matematikan eta astronomian nabarmendu zen. V. mendeko hasieretako Alexandriako eskola filosofikoko kidea izan zen. Adimen ospetsu eta izpiritu libreko emakume hau IV. mendeko Alexandrian kultura grekoerromatarreko ordezkari gorenetakoa bat da. Bere adimendu bizkor, ezagupen ugari, irakasteko dohainak eta karisma pertsonalarengatik garai horretako jakintsuen artean gailendu zen. Hipatia “handiena” zen.



Hipatia

Salernoko Trótula XI. eta XII. mendeen artean Salernon bizi eta emakume-medizinako lan eragingarri batzuk idatzi zituen. Garai horretan emakumeek irakasteko edo eskolak sortzeko eskubidea ukatzen zitzaienez medizinako gidak idatziz konpartitzen zituzten euren ezagupenak.

Christine de Pisanek 1405ean *Damen hiria* idatzi zuen. Iraindutako emakumeek autoritatea daukateneko hiri baten utopia diseinatzen du liburu horretan. Gainera, gizonek eragindako gerra edo kaosik gabeko hiri hori nolakoa izango zen planteatzen du.

Ada Byron (1815-1852). Ospe handiko matematikari ingelesa izan arren, emakume batek idatziak izateagatik arbuiatuta ez izateko artikulua inisialez sinatzen zituen. Bere makina mekaniko analitikoa edozein aljebra-funtzio egiteko eta zenbakiak pilatzeko gai zen. Programa txartelen bitartez sartzen zen makinan. Historiako lehenengo programatzailerak izan zen.

Juana Paila Manso (Argentina, 1819). Olerkari honek emakumeen eskubideen aldeko artikulua batzuk argitaratu zituen, eta hausnarketan eta behaketan oinarritutako hezkuntza mistoa sustatzeko eman zuen bere bizitzaren parte handi bat.



Trótula

Marie Curie (Polonia, 1867-1934). Erradioaktibitateari buruzko ikerketan aitzindari hau bi Nobel Saria jaso zituen lehenengo pertsona eta Pariseko unibertsitateko irakasle bihurtu zen lehenengo emakumea izan zen. Berak ere erradioaktibitate hitz bera asmatu zuen; horretaz aparte erradio elementua aurkitu eta, bere jaioterriaren ohorez, geroago polonio izena eman zion. Bere aurkikuntzak patentatzeari ezezko eman zion ikerketa unibertsalaren eskura uzteko.

Maria Montessori (Ancona, Italia, 1870). Pedagogo feminista hau Italiako lehenengo emakume sendagilea izan zen. Bururatu zitzaion metodoari esker, bere izenaz ezagutua dena, neska-mutilek euren kabuz ikasten, idazten, zenbatzen eta batzen ikas zezaketen, helduen inolako laguntzarik gabe. Mariaren iritziz ikasteak ikasleak zoriontsu egin eta euren sormena eta ahalmen naturalak sustatu behar zituen.

Maria Zambrano (1904-1991). Espainiako pentsalari, filosofo, poeta eta maistra honek hauxe idatzi zuen: “Irakaslerik ez edukitzea nori galdetu eta, are gehiago, noren aurrean zeure buruari galdetu ez edukitzea da”.

Virginia Woolf. Nobelagile, saio-idazle, gutun-idazle, argitaratzaile, feminista eta ipuingile britainiar hau XX. mendeko modernismo literarioko ordezkari nabarienetakotzat hartuta dago. Independentzia ekonomikoa eta gela propioa lortzea garrantzi handikoa zela azaltzen zien neska ikasleei.



Marie Curie

Rachel Louise Carson (1907-1964). Iparramerikako biologo, idazle eta ekologista honek gaur egun hain zabaldua dagoen ingurumenezko kontzientzia martxan jartzeko pisu handiko ekarpenak egin zituen. Lurraren pozoiduran gizakien dugun ardura demostratzeko frogak batzen aritu zen.

Shirin Ebadi (Iran, 1947). Abokatua eta giza eskubide eta demokraziaren aldeko borrokalaria da. 2003ko urriaren 10ean Bakearen Nobel Saria jaso zuen.

Wangari Muta Maathai (1940ko apirilak 1, Nyieri, Kenya). Aktibista politiko eta ekologista kenyarra da. 2004an Bakearen Nobel Saria eman zioten “garapen iraunkorrerako, demokraziarako eta bake-rako ekarpenengatik”.

Anima zaitetz historia aldatu zuten emakumeen irudiak bilatzera eta alda ezazu zeuk ere zure lagunekin batera.




Virginia Woolf

Emakumeak munduan eta Milurtekoko Helburuak

2000 urtean Nazio Batuen Erakundeak, nazioarteko mailan giza eskubideen alde lan egiten duten talde, entitate eta mugimendu askoren laguntza eta presioarekin, munduko desoreken desagerpen eta solidaritatearen aldeko hitzarmen bat sinatzeko beharra ikusi zuten. Era horretan Milurtekoko zortzi Helburuak eratu ziren. Helburu horietan emakumeek daukaten nabarmenkeria aipagarria da, bai bazterketa eta desorekazko egoera larrienak jasan behar dituzten subjektu gisa bai gizateriak dituen hondamen izugarriei aurre egiteko eragile gisa. Pobrezia, gosea, analfabetismoa edo erditzerakoan hiltzeak bezalako sekulako egoerez hitz egiten diguten zifrak aztertze hutsak erakusten digu nola emakumeak, familian eta gizartean betetzen duten zeregina nagatik, ondorio txarrenak pairatu behar dituztenak diren eta, gainera, haien ardurapean pertsona ahulenen sostengua dagoen: haurrak, mendekotasuna dutenak edota adinekoenak.

Munduko leku guztietako emakumeak beren elkarteetan antolatzen ari dira basamortutze, hezkuntza, osasun, garapen ekonomiko edo haurtzaroaren arretari soluzioak aurkitzeko. Emakumeen parte-hartzea garapenaren eragile gisa lehentasun bat da Nazio Batuetako erakundeentzat.

Emakumeen parte-hartzea garapenaren eragile gisa lehentasun bat da Nazio Batuetako erakundeentzat”



Datuen arabera emakumeenganako diskriminazioa mundu osoko gertaera da. Munduko inon, herrialde demokratikoak barne, emakumeek ez dute berdintasun osoa. Ikus ditzagun mundu-mailako datuak:

- ✎ Pobretasun gorrian, egunean dolar bat baino gutxiagorekin, alegia, bizi diren 1.200 milioi pertsonengandik gutxienez %70 emakumeak dira. Gaur egun gizateriaren erdiaren baztertzea azaltzen duten bi diskriminazio-faktoreak generoa eta diru-sarrerak dira.
- ✎ Emakumeek %30 eta %50 artean gutxiago irabazten dute gizonek baino.
- ✎ Garapen bideko herrialde askotan emakumeek ordu gehiagotan lan egin, pisu gehiago eraman, kilometro gehiago ibili, lan xumeagoak egin eta, baldintza horietan, beren familiak kontsumitzen dituzten janariaren %80 ekoizten dute.
- ✎ Lurraren jabetzaren %1 baino ez daukate emakumeek eta jabetasunerako eskubidea erabiltzeko eta maileguak edo beste ekoizte-ondasunak lortzeko muga handiak dituzte.
- ✎ Emakumeek etxeko, familiako eta elkartearekiko ardurak dituzte eta, gainera, ardura horiek lan

ordainduarekin konpartitu behar dute, batik bat sektore informalean eta nekazaritzan.

- ✎ Analfabetismoa, ikasteari uztea eta eskolatze urria ugariagoa da nesken artean; horrek esan nahi du lan eta soldadari begira aukera gutxiago edukiko dituztela.
- ✎ Emakumeek osasun-behar bereziak dituzte. Hala ere, arrazoi ekonomiko, sozial, kultural eta menpekotasunezkoek arreta eta zerbitzuetarako lorpidea mugatzen dute².
- ✎ Etxeko indarkeria gizarte gehienetan orokortuta dagoela eta emakumeen suizidioaren zergatia izaten dela erakusten dute azterketek.
- ✎ Urtero 5 eta 15 urteren arteko bi milioi neska sartzen dituzte “sexuaren merkatu komertziala” izenekoan prostituzio eta pornografiaren bitartez.
- ✎ Estimazioen arabera, urtero mundu osoan lau milioi neska erosi eta saltzen dira ezkontzeko, esklabutzarako edo prostituziorako.
- ✎ Gutxienez 130 milioi emakumeri mozte genitala egin diete indarrez; beste bi milioi hori bera sufritzeko arriskuan daude.

Hau guztia ikusita zeure buruari galdetuko diozu zer egin dezakezun zifra hunkigarri hauen aurrean. Munduko hiritar garenez gero, planetako edozein lekutan gertatutakoa guri dagokigu. Egoeraz kontzientziatu behar duzu eta emakumeen eskubideak gizateriaren erdiaren aurka egiten

Estimazioen arabera,
urtero mundu osoan lau
milioi neska erosi eta
saltzen dira ezkontzeko,
esklabutzarako edo
prostituziorako ”

2 M. Iglesia Caruncho eta M. Castelloren datuak (2003): *Acabar con la pobreza. Un reto para la Cooperación Internacional*. IEPADE. Cándida Gago: *Atlas de las mujeres en el desarrollo del mundo*. IEPALA, Instituto de la Mujer.

duten ohitura, tradizio edo usadio kultural edo erlijiosoek kolokan jarri ezin dituzten giza eskubideak direla ulertu; horra hor injustizien aurka errebelatzeko lehenengo pausua. Bigarrena zure inguruan eragitea da, sexu, jatorri etniko, arraza, erlijio, joera sexual, ahalmen desberdinak eta jaioterriarengatik inor baztertuta ez den lekua eraikitzeko.

Berdintasunarekiko konpromisoa har ezazu, mundu zuzenago, iraunkorrago, solidarioago eta baketsuagorako bidea delako.

Eta oinarritzat har ditzakezun esaldi argitsuak gogoan izan, Concepción Arenalen hau bezalakoak: “Gauza guztiak ezinezkoak dira horrela diruditen bitartean”.



Berdintasunean Hezten

Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren laguntzaz FETE UGTk egindako programa

Zergatik egin kanpaina bat berdintasunean hezteko?

Dudarik gabe, berdintasunean erlazionatzen ikasteko leku pribilegiatutako bat ikastetxeak dira. Elkar hobeto ezagutu, besteen aitortpenean oinarritutako harremanak eduki edo konplizitatetik komunikatu eta emakume edo gizon gisa ditugun eskubideak ezagutzera eramaten gaituzten esperientzia berriak konpartitzen ditugu ordu batzuek egunero. Giden, tailerren eta web orriaren bitartez (www.educandoenigualdad.com), bizitza berdintasunean konpartitzeak zer esan nahi duen hausnartu eta ikertzen lagundu nahi dizuegu kanpaina honetan.

Non gehi ditzaket gidaren edukiak?

www.educandoenigualdad.com web orrian gai bakoitzari buruzko bibliografia komentatua aurkituko duzu. Gainera beste atal interesgarri asko ere aurkituko dituzu: gelan berdintasuna lantzeko gida didaktikoak, bideoak, hezkidetzazko hiztegiak, hizkuntza ez sexistaren gida bat eta *on-line* baliabideak.

Zertan datza 'Berdintasunean Hezten' kanpaina?

Hizkuntza ofizial guztiez egindako bost gida argitaratu ditugu kanpainarako. Gida hauek dohain banatuko dira. Horretaz gain, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako prestakuntza-tailerrak ere egingo ditugu ikastetxeetan. Irakasleentzat hezkidetzako ikastaroak egingo ditugu. www.educandoenigualdad.com web orriaren bitartez jarrai dezakezue kanpaina.

Eta zalantzak argitu edo informazioa eskatu behar badut?

Berdintasuna eta hezkidetzari buruzko aholkularitza bat duzue zuen eskura www.educandoenigualdad.com web orrian zuen galdera eta eskakizun guztiei erantzuteko. Kanpainaren baliabideei buruzko galderak helbide elektronikoko honi bidal diezazkieke: info@educandoenigualdad.com